

Berrikuntza-komunitateak Berritzelan Sarea

Lankidetza-proiektu traktoreak
sortzeko gunea

Parte hartzeko orientabide praktikoa



berritzelansarea
Enplegurako eta Gizarteratzeko Berrikuntza Sarea
Red de Entidades Innovadoras en Empleo e Inclusión



EUSKAL ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA
SERVICIO PÚBLICO VASCO DE EMPLEO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EKONOMIA, LAN ETA
ENPLEGU SAILA
DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA,
TRABAJO Y EMPLEO

Berritzelan Sareak, enpleguaren eta haren zerbitzuen inguruan ideia, proiektu, ekimen eta lan egiteko modu berriak bultzatzeko eta garatzeko lankidetza-plataformak, **IKERKETATIK EKINTZARA pasatzea** proposatzen du 2026ean. Helburu horrekin, **Sailak BS Berrikuntza Komunitateak** aktibatzen ditu.

Berritzelan Sarea osatzen duten erakundeak lankidetza-proiektuak diseinatzerako gonbidatzea da orientabide horien helburua.

Parte hartzera gonbidatzen zaitugu:

- Interes osagarriak dituzten erakundeekin konektatzeko.
- Irismen eta bideragarritasun handiagoko proiektu estrategikoak batera sortzeko.
- Tresna eta praktika berritzaile aplikagarriak ikasteko.
- Lankidetza-aukerak identifikatzeko.
- Zure erakundea berrikuntzaren eragile aktibo gisa posizionatzeko.

BS Berrikuntza komunitatea...

- **Lankidetza-ekosistema** bat da, Sarea osatzen duten eta sistematikoki elkarri eragiten dioten erakundeez osatua, ezagutza berriak sortu, partekatu eta aplikatzeko, eta, hala, baliozko irtenbideak lortzeko.
- Berrikuntzaren, sormenaren eta ikaskuntza kolektiboaren bidez **enpleguaren eta laneratzearen arloko erronka konplexuak** konpontzeko dituen ingurune bat lantzea du helburu.
- Berritzelan Sarearen esparruan, berrikuntza-komunitateak elkarlanerako gune bat dira, emaitza zehatzak lortzeko eta **lankidetza-modu berriak irekitzeko**.

Trakzio-proiektutzat hartzen dugu...

- **Euskadik enpleguaren eta gizarteratzearen arloan dituen erronkei erantzun berritzaileak eskainiko dizkieten proiektu estrategikoak.**
- Sailaren eta Lanbideren aldaketa- eta eraldaketa-planekin lerrokatuta.
- **Enplegu-politikak modernizatzen eta politika horien inguruan lan egiten duen gizarte-eta ekoizpen-sareari berrikuntza transferitzen eta sustatzen laguntzeko esparrua.**
- **Euskadiko enplegu eta inklusio ekosistema arrastatu, bultzatu eta eraldatzeko gaitasuna duten tamaina handiko ekimenak.**
- **Baliabideak, ezagutzak, eragileak eta askotariko inpaktuak** helburu estrategiko komun baterantz **mugitzeko eragile**.

2026ko erronkak: lehentasunezko foku tematikoak

Euskadik enpleguaren eta gizarteratzearen arloan dituen hainbat erronka planteatzen dira, eta erronka horiek lehentasunezkoztat jotzen dira trakzio-proiektuak diseinatzerakoan. Komunitate bakoitzak ikuspegiak zehaztuko ditu erronka bakoitzaren barruan, proiektu-aukera bihurtzeko.

2. Erronka

Senior talentua

Nola aktibatu, eguneratu eta atxiki talentu seniorra hainbat sektoretan?

5. Erronka

Ospe-erronka edo sentsibiltate sozial handiko erronkak dituzten sektoreetara erakartzea

Nola hobetu dezaket erakarpen txikiko sektoreekiko pertzepzioa eta pertsonen sarrera?

3. Erronka

Migratzaileak eta kolektibo kalteberak integratzea

Nola bizkortu pertsona migratzaileen eta kolektibo kalteberen gizarteratze soziolaboral eranginkor eta iraunkorra?

6. Erronka

Emakumeak sektore maskulinizatueta

Zer palankek funtzionatzen dute emakumezkoak tradizioz maskulinoak izan diren sektoreetara erakarri eta txertatzeko?

1. Erronka

Talentuarekiko lehia (erakarpina eta fidelizazioa)

Nola erakarri eta mantendu talentua tentsio handiko merkatu batean?

4. Erronka

Digitalizazioa enpresa eta administrazio publikoan

Nola ziurtatu digitalizazioa eta sarbidea?

7. Erronka

Orientazio profesionala (talentuari lotua)

Nola hobetu orientazioa gaitasunak benetako aukerekin konektatzeko?



berritzelansarea
Enplegurako eta Gizarteratzeko Berrikuntza Sareo
Red de Entidades Innovadoras en Empleo e Inclusión



Lan-metodologia

Berritzelan Sareko erakunde guztiei otsailean eta martxoan egingo diren bi laborategietan parte hartzeko gonbidapena egiten zaie:

- **1. Laborategia** Miaketa eta ikaskuntza sistemikoa.
- **2. Laborategia** Proiektu Traktore Estrategikoak asmatu eta definitzea.

Zer eskatzen dizugu erakunde gisa

- Bi saioetara joatea eta mahaietako lanean parte hartzea.
- Ideiak ematea: antzemandako beharrak, ikaskuntzak, adibideak, funtsezko kontaktuak (enpresak, kolektiboak, lurraldea).
- Aliantzak arakatzea: zer beste erakunderekin duen zentzua proiektu partekatu bat eraikitzeak
- Liderra izateko edo beste batzuekin batera lider izateko prest egotea: zuen erakundea "erakunde lider" edo laguntzaile gisa egokitzen den.

Ebaluazio batzordea

Laborategietan landutako aukeretatik, Batzorde honek aukeratuko ditu Sailaren eta Lanbideren estrategiekin eta Euskadik enpleguaren eta gizarteratzearen arloan dituen erronkekin bat datozen proiektuak. Hautatutako proiektuen bideragarritasun teknikoa eta inpaktu eraldatzailea bermatzea izango da haren egitekoa.

Proiektuak baloratzeko irizpideak

- **Lerrokatze estrategikoa:** Sailaren estrategiekiko koherentzia.
- **Berrikuntzaren kalitatea eta maila:** izaera berritzailea, ikuspegi komunitarioa, trakzio-efektua.
- **Inpaktua eta eskalagarritasuna:** emaitzak, jasangarritasuna eta eskalagarritasuna.
- **Bideragarritasun teknikoa eta finantzarioa:** komunitateko kideen aurretiko esperientzia eta talde teknikoa planteatutako erronkara egokitzea; aurrekontu-errealismoa (proposatutako jardueren koherentzia).
- **Zeharkako irizpideak:** aniztasuna, digitalizazioa eta iraunkortasun berdea.